



BARREN  
TOKIKOM



# Indigenen ahalduntzea

# EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra

## **TALDE ERAGILEAN PARTE HARTZEKO GONBITA**

EUSKARALDIA ariketa sozialaren hirugarren edizioa egingo da aurten. Aurreko bi edizioetan moduan, herritarron hizkuntza-ohituretan eragin eta euskararen erabilera areagotzea izango da helburua.

Lehen edizioak (2018) izugarritzko arrakasta izan bazuen, bigarrena (2020) pandemiak goitik behera baldintzatuta egin zen. Norbanakoekin batera entitateek ere parte hartu zuten, baina pandemiak eragin handia izan zuen, ekimenaren kalterako.

Hirugarren edizioan berriz ere berreskuratu nahi dira lehen edizioko energia eta ilusioa. Jendea berriz ere aktibatu nahi da, kalera atera, eta helburua ariketa jende gehiagok eta hobeto egitea izango da.

EUSKARALDIA ariketa soziala Elgoibarren sustatu eta dinamizatuko duen **TALDE ERAGILEA** prestatzen dihardugu. Dagoeneko 17 entitate eta norbanako gaude izena emanda, baina ateak zabalik daude, bai entitateentzat eta baita norbanakoentzat ere. Izena emateko:

Aita Agirre kulturgunea 3, 3 ezkerre

943 741 626

[elgoibar@euskaraldia.eus](mailto:elgoibar@euskaraldia.eus)

Izena emateko azken eguna: apirilak 29



SARA IRIONDO OTAÑO

Gizarte ekintzailea



## Zomorro ala mahaspasa?

zaiozue buelta. Antzematen al dizkiozue hantkatxoak? - zortzi kontatunizkion - Hilda dago. Zuen ezpainetara hurbildudezakezue eta bere azal zimeldua sentitu. Egin iezazozue hozka. Murtzikatu eta dastatu. Irentsi.”

Ez nuen ezpainetara hurbildu, ez nion hozka egin, ez nuen irentsi. Nire aurrean utzi nuen, besterik gabe. Azalpena amaitzean, gidariak, parean nuena jaso eta gelako argiak piztu zituen. Begiak mantso-mantso ireki genitzakela adierazi zigun.

Ustekabean niregana hurbildu zen eta galdetu zidan:

*“Lehen sentitu dudana aldatu ezin dudan arren, orain desberdin sentitu dezaket, agian”*

- Zer dela eta ez duzu jan?  
- Ez nuelako zomorroa jaterik nahi. - erantzun nion.

- Ez zen zomorro bat, mahaspasa bat zen. - esan zidan.

Berehala, bizi izan nuen guztia baliogabetu nuen eta denboran atzera egiteko desioa piztu zitzaidan, mamorrotzat hartu nuen hura mahaspasa moduan sentitzeko gogoz. ‘Zergatik ez zara konturatu benetan mahaspasa bat zela?’ galdetzen nion nire buruari etengabe, zigortzaile. ‘Ez zaude burutik sano!’, epaitu. ‘Mahaspasa bat zela jakin izan banu, jango nukeen’, suposatu.

Lehen sentitu dudana aldatu ezin dudan arren, orain desberdin sentitu dezaket, agian. Nire arrazoia aldakorra da, batzuetan. Ez dakit, mahaspasa bat zela ulertu izan banu, agian jango nukeen, edo ez.

Isiltasun baten ostean esan nion:

- Hara! Zure egia eta nirea ez datoz bat, beraz.

Kontatuko dizudan hau mintegi batean gertatu zitzaidan. Gidari lanean ari zenak gelako argiak itzali zituen. Lurrean esertzeko eskatu zigun, begiak isteko eta arreata gure arnasketan jartzeko. Ahozko argibideak ematen hasi zen orduan:

“Zuen parean zomorro bat utzi dizuet. Begiak ireki gabe eta eskuez baliatuz, bilatu ezazue. Hartu eta ukitu ezazue leunki. - horixe egin nuen - Sentitzen al duzue? Txikia da. Hauskorra. Poliki-poliki laztandu iezazozue bizkarraldea. Nolakoa da? Gogorra da, ala biguna? Astiro eman ie-



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA  
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuittzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jar-tzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

#### ► EGIARI ZOR

Elgoibartarra naiz, eta desgaitasun handia daukat. Jende askok bezala pentsatzen dut etorkinek gure herrian gaixoak zein adinekoak zaintzen egiten duten lan soziala garrantzitsua dela, eta jakina, hori eskertzekoa da. Hala ere, hainbatetan, nire kasua barne, eta, zoritxarrez ez kasu bakarrean, zaintzaile horiek ematen duten tratua zorigaiz-tokoa da, izan ere, tratu benetan txarra jasotzen dugula te-orian zaindu egin beharko gintuzketen haiengandik. Hori horrela, hau guztia gizartearen aurrean jarri beharreko kon-tua dela uste dut. Guk zaintzaile horien eskubideak zaindu behar ditugun moduan, beraiek gureak ere zaindu behar dituztelako.

G.A.

#### ► ZUK, ZERGATIK EZ...

Urkoren abestiak dioen bezala: *guk, euskaraz; zuk, zer-gatik ez?*. Denok dakigu aurten Korrika oso berezia dela *hitze*kin.

Gero eta gehiagok maite dugu euskara, horregatik parte hartu behar dugu. Agian ezin duzu 3km korrika egin, ez kezkatu, 100m edo akaso 20m nahikoa izango dira. Garrantzitsuen da parte hartzea: korrika egin, txalotu edo AEKren gauzak erosi. Horrela, euskara bultzatuko duzu, maite duzuna babestuko duzu.

Egin korrika euskararekin, sentitu euskaraz, bizi euska-raz...

Lagundu iezaguzu ez dakitenek euskara ikasteko eta euskaraz bizitzeko. Amets bat daukagu, ametsetan euska-raz egitea.

HITZEKIN.

Imanol Cerdeira Lasheras




**LAGUNAK**  
colahoneria textil hogor

Komertzioekin lan egiten dugu  
(etxeko ehungintzekin  
eta jantziekin)  
**TARIFA BEREZIAK!**

**Ba al duzu konpondu beharreko arroparik?  
Ekarri, eta berri-berri utziko dizugu, zeure neurrira.  
Jantzigintzarako makina bereziak ditugu,  
edozein ehun konpondu ahal izateko:**

**PUNTUZKO EHUNAK, TXIRRINDULARITZAKO MAILOTAK ETA KULOTEAK,  
LARRUA, ZETA ETA ABAR LUZE BAT...**

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978  
[www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



Eskertzak eta urteurrenak  
943 743 704  
943 744 112

Aita Agirre Kulturunea, 3. 3. esk.  
[barren.publiko@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publiko@elgoibarkoizarra.eus)



I. URTEURRENA

**Manuel  
Ramirez  
Diez**

2021eko martxoaren 31n hil zen, 84 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, domekan, apirilaren 3an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldeztu aurretik eskerrak.

**Ez ezazue negarrik egin,  
zuentzako ez naizelako hil.  
Jainkoarekin batzera noa  
eta zeruan izango nauzue zuen zain.  
Badakit lurrean banengo bezala maite nauzuela,  
eta nik zerutik maiteko zaituztet.**



Familiakoak



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  943 744 112  688 634 044



**Urazandiko espaloiak kakaz beteta daude:**  
 "Joan zen domekan horrela aurkitu genuen Urazandiko espaloi hau. Lotsagarria. Txakur jabe batzuek ez daukate aukideekiko inolako errespeturik. Errua ez da txakurrena, jabeena baizik".



**Igogailu urdineko plastikoa hondatuta dago:**  
 "Trenbide Kaletik Pista Beltzera doan igogailu urdineko plastikoa zulatuta dago. Nahita eginda dagoela dirudi, ez du ematen berez hondatu denik. Iruditzen zait herri honetan jendeak ez dituela guztionak diren gauzak zaintzen".



**Aste honetan berriz geldirik aurkitu dugu anbulatorio aurreko igogailua:** "Sei bat astez geldirik egon ondoren, joan zen astean zabaldu zuten anbulatorio aurreko igogailua, eta aste honetan berriz ere geldirik aurkitu dugu. Nola da posible? Obretan hainbeste denbora egon ostean, oraindik lurra margotzeko dago, eta atea konpondu dituztela esan duten arren, ez dira ondo ixten. Barritik bultza egin behar izaten diegu ateei, eta hala ere, ez dira ondo ixten".



**Txalo bat Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolarentzat:** "Zorionak Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako arduradunei eta baita ikasleei ere, joan zen astean eskaini zuten jaialdiagatik. Oso polita izan zen. "

## Gaurtik eskuratu daitezke 'Bizi-bizixa' kanpainako bonoak 43 saltokitan



Herriko 43 saltokik hartuko dute parte Udalak antolatutako udaberriko *Bizi-bizixa* bono kanpainan, eta arduradunek jakinarazi dutenez, gaurtik aurrera eskuratu daitezke bonoak denda horietan. Udalak 25.000 euro inbertituko ditu kanpaina honetan. 3.300 bono banatuko dituzte, eta horiei esker, herritarrek %25eko deskontua izango dute erosketetan. Deskontua gutxienez 5 euroko eta gehienez 60 euroko gastuetan soilik aplikatuko da, eta bonoak maiatzaren 13ra arte trukatu ahal izango dira, betiere dendak egun horretara arte bonoak baditu. Hauek dira parte-hartzaileak: G&M, Karkizano, Alire, Farmazabal, Lagunak, Ene Bada, Biok, Hair's, Astigarraga, Nº1 zapa-tillas, Donna, Cristina Garcia, Garate, Garbiñe, Kala, Hurbil, Idama, Iriondo kirolak, Azkue, Pitxintxu, Fadek, Bizkor, Aranburu, Mara, Kima, Ecenarro, Aauri, Ipintza, Masumis, Maria Urizar, Zazpi, Nalai, On, Olaia Martinez, Lete, Ikus, Sara, Ferpi, Iria, Moma, Agurtzane, Uzuri, Surya.

## Hileko azken zapatuko ferian txosna jarri nahi duten elkarteek izena eman behar dute apirilaren 19rako



Maiatzeko ferian berreskuratuko dute hileko azken zapatuko ferriako txosna, eta hura kudeatzeko interesa duten elkarteek izena eman beharko dute, apirilaren 19rako, esteka honetan: <https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USC-ServicioCiudadanoVer15WEB/segundaPag.do>. Maiatzetik aurrera pandemia aurreko egitaraua izango du feriak: azoka, txosna, umeentzako tailerrak, kale kantariak eta ganadu erakusketa.

## Gizarte larrialdietarako diru-laguntzak

Otsailaren 22an zabaldu zuen Udalak gizarte larrialdietarako diru-laguntzak eskatzeko epea. Laguntza hauen helburu nagusia da zenbait pertsonak jasaten duten bazterketa sozial, ekonomiko eta laborala arintzea eta gizarteratzea errazteko bitartekoak eskaintzea. Eskae-rak aurkezteko epea datorren azaroaren 30era arte egongo da irekita. Dena den, osasunarekin zerikusia duten lehen mailako premiak estaltzeko laguntzak, pentsiodunak edo adingabeak ez diren pertsonentzako epea abuztuaren 31ra arte egongo da zabalik. 2021eko datuen arabera, Elgoibarko Udalak 176.499,27 euro inbertitu zituen gizarte-larrialdietarako laguntzetan. Elgoibarko Udalak 256 laguntza-eskaera jaso zituen guztira. Eskaera horietatik, 151 eskatzaile izan ziren, eta 377 onuradun guztira. 151 pertsona horietatik 54 bertakoak ziren, eta 97 atzeritarrak.

## Parrokiaren ondare artistikoa babesteko hitzarmena, Udala eta parrokiaren artean

San Bartolome Parrokiako ondare historiko-artistikoan aurtan egingo dituzten konponketa, mantentze eta hobekuntza-lanak diruz laguntzeko hitzarmena sinatu dute Elgoibarko Udalak eta San Bartolome parrokiak, eta horri esker, 14.000 euro jasoko ditu parrokiak. Udaletik azaldu dutenez, era askotariko ondare historiko-artistikoa eta erlijiosoa du parrokiak, San Bartolome elizan eta San Bizente-San Roke, Done Laurenti (San Lorentzo), Done Mikel (San Migel) eta Done Petri (San Pedro) ermitetan banatuta. Eraikin horiek guztiak Elgoibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean ageri den kultur ondasunen Katalogoan jasota daude, eta babes maila desberdinak dituzte. Aipatutako tenpluez gain, San Antolingo kaperaren barrualdean, Sigmako Santiago elizan eta Santa Maria Magdalenaren ermitan balio historiko-artistikoa duten irudiak eta elementu higigarriak ere badaude.

## Elgoibar Ikastolako DBH3. mailako ikasleek 1.390 euro irabazi dituzte 'Zuk Zeuk' lehiaketan



Elgoibar Ikastolako DBH3ko bi taldek Feel My Way gazte ekintzaileen Kooperatibak antolatzen duen *Zuk Zeuk* lehiaketan hartu dute parte. Euskal Herriko zortzi ikastetxetako 500 gazte aritu dira garapen jasangarrirako helburuei lotutako gai ezberdinak lantzen, ekintza eta erronken bitartez, eta Elgoibarko ikasleek 1.390 euroko saria irabazi dute. Ananak izeneko taldea 9. postuan sailkatu da, eta Gormitiak 11. postuan. Txapelketak proposatutako jardueretako batzuk bitxikeriei buruzkoak izan dira, beste batzuk akziora bideratutakoak, eta inspirazioko eta elkartasuneko jarduerak ere izan dituzte.

Lehiaketaren laugarren edizioa izan da aurtengoa, eta izan duen harrerarekin oso pozik agertu dira antolatzaileak. Aipatu dute formatuak urte-urte izan duen garapenarekin ere asmatzen ari direla, gizartearen beharretara moldatuz. Orain arte bezala, Euskal Herriko sei eragile publiko zein pribaturen babesa jaso du ekimenak: Foru Aldundia, Laboral Kutxa, Hazi, Ausolan Fundazioa eta Mugi.

## AP-8 autobideko trafikoak herrian duen eragina aztertzeko zarataren diagnostikoa egingo du Mendaroko Udalak

Mendaroko Udalak jakitera eman duenez, AP-8 autobideko trafiko-zaratak herrian duen eragina aztertzeko diagnostiko bat egiteko eskatu dio Laecor enpresari, eta printzipioz, Arno Bidea, Azpilgoeta kalea eta Mendaro ondoko bizitegi-ingurune ko kalteak aztertuko dituzte. Egoera aztertu ondoren, diagnostikorako bi bide irekiko dituztela erabaki dute. Lehenengo azterketa akustiko bat egitea da. Honekin, inpaktu akustikoari buruzko azterketa bat egingo dute goiz, arratsalde eta gauetz. Zarata neurtzeko bigarren modua ingurune ko zarata neurtzen duen monitorea bat ezartzea izango da. Monitoretza-estazioen bidez *in situ* egingo dute neurtzea, gutxienez 24 orduko ziklo jarraituetan eta bi kontrol-puntutan. Emaitzen bidez, eguneko, arratsaldeko eta gaueko aldi osoak aztertuko dituzte, bai eta eragin-maila handienekoak ere, ordu-tarteetan.





Viviana Neihual, Leticia Vazquez, Lizbeth Carrillo, Veronica Ortega, Yamili Chan eta Mirian Hernandez ekintzaile indigenak.

# Euskalgintzaren eta Latinoamerikako komunitate indigenen ahizpatzea

**Latinoamerikako komunitate linguistiko ezberdinetako ordezkariak izan genituen bisitan barikuan Elgoibarren. Garabide Gobernuz Kanpoko Erakundeak antolatuta, hilabeteko egonaldia egiten ari dira Euskal Herrian, eta Elgoibarko Izarra ezagutzera etorri ziren gurera.**

- AINARA ARGOTIA -

Euskararen esperientziatik abiatuta, hizkuntza gutxituen biziberritze prozesuak bultzatzen ditu Garabide Gobernuz Kanpoko Erakundeak, eta haren eskutik etorri dira Euskal Herrira Latinoamerikako hamabi komunitate linguistikotako ordezkariak. HIBIL-Hizkuntza Gutxiak Biziberritzeko lankidetzakimena baita daude hemen, hilabeteko egonaldia egiten, eta hogeitaz lagun dira guztira: 15 emakume eta bost gizon. Eta datu hori, parte-hartzaileen %75 emakumezkoak izatea, bada azpimarratzekoa, komunitate eta hizkuntza gutxituen aldeko jardunean emakumeek duten garrantziaren adierazle delako, han hemen bezala. Egunotan, saio teoriko eta bisita ugari egin dituzte euskalgintzako eremu ezberdinetako entitateetara, eta joan zen barikuan, Elgoibarren izan genituen haietako sei emakume, Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea bisitatzen. Esperientziak, kezka eta gogotak partekatu dituzte bisita horietan guztietan eta euren hizkuntzak biziz berritzeko oharrak hartu ere bai. Baina jaso duten beste edo gehiago da laga digutena, eta ahalduz ariketa handia elkarrekin egin duguna.

Maialen Gurrutxaga Elgoibarko Udaleko Euskaraz Zinegotziak eta Imanol Larrañaga Elgoibarko Izarrako dinamizatzaileak egin zieten harrera barikuan, Aita Agirre Kulturguneko atarian. Udalaren eta Elgoibarko Izarraren arteko harremanaren berri eman zien Gurrutxagak aurrea, eta ondo-

ren, Elgoibarko Izarraren historiaren eta elkartearen misioaren, bisioaren eta baloreen jardun zitzaien Larrañaga, Sebas Larrañaga bazkide eta Elgoibarko Izarraren sustatzaileetako bat lagun hartuta. Oinarriko azalpenen ondoren, Elgoibarko Izarraren finantziario-sistema, bi proiektu nagusiak - Atxutxiamaika eta BARREN - eta Elgoibarko Izarrako lantaldea ere ezagutu zituzten. Gaur, baina, kontrako egin nahi genuke orrialde hauetan: haien hizkuntza komunitateak ezagutu, munduko beste bazter batzuetan gure egiteko berean bizi direnen kezka eta erronka nagusien berri izateko.



Elgoibarko Izarrako zenbait langile eta sei emakume bisitariak, elkarrekin.





## VERONICA ORTEGA BAPTISTA. Kitxua hizkuntza. Bolivia.

Boliviako 36 hizkuntza hitz egiten dira eta guztiak dira ofizialak eta estatuak errekonozituak. Eta kitxua da hizkuntza gutxiesten artean gehien erabiltzen dena. 3 bat milioi lagun [11 milioi lagun bizi dira Bolivian, 2012ko datuen arabera]. Kitxua hiztunen %80k espazio informalean erabiltzen dute bereziki, espazio formal eta akademikoan %30 batek, eta emakumezkoak dira hiztun gehienak. Veronica Ortegak azaldu du, Bolivian, kitxua hizkuntza komunitatea mendebaldeko eskualdeetan kokatzen dela, Chuquisaca, Cochabamba eta Potosi departamentuetan bereziki, eta nekazaritza eremuetan eusten zaiola gogorren, hiriguneetan gaztelaniarako joera nagusitzen delako.

Amarekin eta senide batzuekin erabiltzen du Ortegak kitxua, baina lanean bere hizkuntzan aritzeko aukera ere beste askok baino handiagoa du eta zorionekoa dela dio, "izateko eta mundua ulertzeko bitartekoa" duelako hizkuntza. "Amari ikasi nizkion lehenengo hitzak kitxueraz izan ziren eta hizkuntza da naturarekin komunitatean bizitzea ahalbidetzen didana, eta aldi berean, komunitate eta mundu bateko kide sentiarazten nauena". Asociación Cultural Amistad y Ciencia elkartearekin lan egiten du berak, emakumeekin eta neskekin bereziki, gizarte- eta hizkuntza-prozesu eraldatzaileak sortzen, "prestakuntza kritikoa eta parte-hartze aktiboa sustatzen, beti ere genero ikuspegi batetik, kitxuatik eta kitxueraz". Dio, legez, kitxuak baduela halako aintzatespen bat Boliviako zenbait departamentutan eta hizkuntzaren beraren corpusaren normalizazioan lanean ari den erakundea ere badutela, baina erronka handiak dituztela. Hiru nabarmendu ditu: erabilera sustatzea, kitxuarentzako espazio berriak irabaztea eta prestigioa lortzea, baina baita batasunaren alde egitea ere. "Batasunaren alde egin behar dugu iritzi politiko, erlijioso eta desberdintasun ekonomikoak alde batera lagata, traba handia zaizkigulako hizkuntza biziberritzeko ahalginear", zehaztu du.



Euskal Herrira etortzea "ahalduntze esperientzia izugarria" izan dela dio eta oharrez beteta daramala kuadernoa. "Ikusi dut hizkuntzari esker gauza asko lortu daitezkeela elkarrekin, eta arreta berezia deitu dit bereziki emakumeen ahalduntzean egin duzuen lanak".

## MIRIAM HERNANDEZ HERNANDEZ. Totonaku hizkuntza. Puebla hiria, Mexiko.

"Hizkuntzak ardazten du totonakuon mundu-ikuskerara. Mundu bat da guretzat hizkuntza eta gure bizitzeko moduari dagozkion gai guztiak egiten die erreferentzia", dio Miriam Hernandezek. Totonaku komunitate linguistikoak 256.000 hiztun ditu, "urteak urtera gutxiago". Etxean, birramonarekin eta izeba zaharrenekin hitz egiten du totonakuz, eta lanean, lankide bierekin baino ez. "Gurasoek ez digute etxeko hizkuntzan egin, gaztelaniaz bizitzeak aukera gehiago eta hobeak eskainiko zizkigulakoan, eta gure kulturaren bereizgarri ziren ohitura, jantzi eta abarrak ukatu dizkigute, modernizatu beharra ikusita. Era berean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, totonakuz hitz egitea galarazi ziguten eskolan ere. Abandonatu egin dugu bereizten gaituena, gure izatea. Gaztelaniak bere egin ditu gure bizitzeko moduak, gure eguneroko eszenatoki guztiak irabazi ditu". Tosepan Titaniske kooperatibarekin lan egiten du Hernandezek, han bertako produktuen ekoizpenari lotutako gaietan eta edadetuekin totonakuz egiten saiatzen dela dio, "konfiantza norbere hizkuntzan hasten delako".

Totonakua biziberritzeko erronkak identifikatuta ditu. Errelatua landu beharra ikusten du, diskurtsoa osatu eta zabaldu beharra. Gure kideak sentsibilizatu behar ditugu eta hezkuntzan totonakua lehenesteko bidea egin. Hizkuntzaren familia bidezko



transmisioaren garrantziaz ohartarazi behar dugu eta hein berean paisaia linguistikoa aldatu.

Euskal Herrira etortzeak hizkuntzak duen indarrak jabetzeko balio izan diola esan du eta "itxaropentsu" doa urteetan debekatuta edo gutxietsia egon den euskarak izan duen suspertzea ikusita. "Maleta txiki batekin etorri nintzen, eta esperientziak beretik eramango dut bueltan. Motibazio haizak daramatzat etxera, han ereiteko". Totonaku hizkuntza suspertu ahala galdutako bizimodu bat berreskuratzea aukera ere ikusten du, bai eta "mundu gizatiarragoa" eraikitzea aukera ere. "Gure kulturaren naturari oso lotuak bizi izan gara. Naturaren osagarri ginela uste zuten gure arbasoek, baina ikuskerara hori galtzen ari gara. Gaur, esplotatu beharra dugun kutxa gisa ikusten dugu natura; dena da gehiago produzitzea, eta hori ez da Totonakuon mundua ikusteko modua". Euskal Herritik "miretsita" doala dio. "Euskaltzaleen borroka erresistentzia totala izan da, miresteko, eta indartuta eta motibatuta noa, ikusi dudalako ez garela bakarrak geure luraren geure kulturaren alde borrokan ari garenak". Eta gaineratu du hemen ikusi eta ikasitakoa bezain aberasgarri egin zaiola beste komunitate linguistikoetako lagun indigenen esperientziak eta eginahiak ezagutzea.

## VIVIANA NEIHUAL LLANCOPAN. Mopunzugu hizkuntza. Maputxeen komunitatea. Txile.

Kolonizazioak, espainiarrenak lehenengo eta txiletarrenak gero, eta erlijioek, katolikoak eta protestanteak, erabat zokoratu zituen Txileko komunitate linguistikoak. Maputxeen komunitateak eusten dio bizien, "lurrarekin dugun konexioagatik". 500 urte baino gehiagoko borrokan jarraitzen dute, estatutuak ez duelako aitortzen haien kultura. Txilen hitz egiten diren hizkuntza gutxituen artean (aimara, rapa nuia, diagita, atacameñoa, txangoa, kawashkar...) bizien dagoen hizkuntzetako bat da haiena, mopunzugua [dozenaka hizkuntza galdu dira]. Maputxe komunitatearen errolda fidagarririk ez dago, besteak beste maputxe askok ere uko egin dietelako erroldatzeari, protesta gisa, baina azkeneko datuen arabera, 1,4 milioi pertsona inguru identifikatzen dira maputxetat, eta erdiak inguru dira mopunzugu hiztunak. "Txileko Gobernuak onartzen ez duen arte hemen bertako herrien historia, gurea kulturarik gabeko herria izango da", zehaztu du horren harira.

Viviana Neihual ez da mopunzugu hiztun osoa. Amamak ez zien hizkuntza transmititu, euren eskolatzeko sasoian zigor handiak



jasan behar izan zituztelako mopunzugueraz egiteagatik, eta amak ere ez die hizkuntza eman, beldur beragatik. Iraultza hori berak. Ikasten dihardu eta ikasitakoa irakasten. Garbi dio hizkuntzaren bidez, komunitate baten ezagutza, sentimenduak eta baloreak zabaltzen direla; izateko erreminta dela. "Norche (pertsona zuzena), Newenche (pertsona indartsua), Kimche (jakintsua), lifche (bihotzez eta espirituz garbia) eta kume mongen (bizi ona) esaten diegu guk balore horiei. Naturaren beste indar bat da hizkuntza, lurrari lotzen gaituena", dio. Txilen berriki hil den azken yanar hiztuna ekarri du akordura Viviana Neihualek. Hiztegi bat osatzen jardun zen azken arte, baina hura hilda, "ondo bizitzeko jakituria oso bat" galdu dela nabarmendu du.

Euskal Herrian entzun eta jasotako guztiak ideia bat azpimarratu du: bihotza, burua eta eskuak dituen sentitzeko, pentsatzeko eta ekiteko moduan izango dela beti, eta errezik egon ez arren, ahaleginak merezi duela. "Ikasgai handia izan da hona etortzea: Asko ikasi dugu, eta batez ere, helburu baten bueltan elkartzeko eta elkarrekin egiteko izan duzun indar hori baloratzen dut".

## YAMILI CHAN DZUL, Yucatango Maia hizkuntza. Mexiko.

"Gure arbasoen memoria egiteko eta diskurtso hegemonikoa eraisteko apustu politikoa da niretzat hizkuntzaren alde egitea; munduan bizitzeko eta maitatzeko modu askotarikoak daudela erakusteko bidea", dio Yamili Chanek. Maia hizkuntzaren alde egitea bere herriaren emantzipazioaren alde apustu egitea dela uste du, eta sinistuta dago hori modu kontziente batean egiteak hizkuntza komunitatearen askatzea ekar dezakeela. Yucatango maia da bere hizkuntza, Mexikon hitz egiten diren hizkuntza indigena guztien artean bigarren indartsuena, Nahuatlaren atzetik. Yucatango penintsula osatzen duten hiru estatuetan (Campeche, Quintana Roo eta Yucatan) hitz egiten da, baina urtetik urtera hiztunak galtzen ari dira. "Pandemian, adibidez, hiztun asko galdu ditugu, jende edadetu asko hil zaigulako". Hala ere, bada itxaropenerako motiborik. Belaunaldi gazteen artean halako suspertze moduko bat ari da ematen. "Ulertzen dute eta hitz egiten dute, eta 30 urtetik 50 urtera arteko asko ari dira maia hizkuntzaren alde egiten, bai giza eskubideen alorrean, bai eta esparru akademikoan ere".

Bere hizkuntza komunitatearen erronka handien artean bi nabarmendu ditu Yamili Chanek: estatuaren politikaren kon-



tra egitea eta gizarte eragile ezberdinen arteko artikulazioa bultzatzea. "Hizkuntzak ez dira galtzen. Hizkuntzak hil egiten dituzte. Gure kasuan, estatuak proiektu oso bat dauka horretarako". Chanek dio "mestizajearen mitoa" sortu duela Mexikoko Gobernuak, "diskurtso oso bat zeinak esaten duen denok berdin jantzi behar garela, denok hizkuntza bera hitz egin behar dugula". Aniztasuna aberastasuna dela uste dutenen artean aliantzak sortu beharra ikusten du, sinergiak sortu beharra. Eta Euskal Herrian euskalgintzako entitate ezberdinetara egindako bisitetan horren inguruak dira jaso dituen oharrik gehienak.


"Zuen artean harremantzeko eta antolatzekeo dituzuen erresilientzia mekanismoekin eta kooperatibismoaren ideiarekin gelditzen naiz, batez ere. Adibide asko ikusi ditugu eta ezingo ditugu bere horretan kopiatu gure herrietan, geopolitikoki beste joko-zelai batzuetan borrokatzea dagokigulako guri, baina hitz egingo dut nire hizkuntza komunitateko kideekin eta aztertuko dugu, esperientzia horietatik zeintzuk zaizkigun baliagarriak gurean. Gertu sentitzen zaituztegu eta badakigu bai zuek eta baita guk, latinoamerikako jatorrizko herriok, elkarrengandik ikasten jarraitzeko aukera izango dugula etorkizunean ere", nabarmendu du.



## LIZBETH CARRILLO CAN. Yucatango maia hizkuntza edo Maaya t'aan hizkuntza. Mexiko.

Mexikon, jatorrizko 68 hizkuntza hitz egiten dira gaztelaniaz gainera, eta Yucatango maia edo Maaya t'aan da horietako bat. Azkeneko urteotan, baina, hiztun asko galdu ditu, eta hizkuntza eta kultura biziberritzeko lanean ari da Lizbeth Carrillo, Yúuyum elkartearen, Hizkuntza Biziberritzeko Tokiko Erakundearen, irakasle gisa [Irrati bat sortu zuten aurrena eta 2016an hasi zituzten emankizunak, Internet bidez].

Gaur, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ikasten dute haurrek maia, gaztelaniarekin batera, baina goragoko mailetan ez du jarraipenik. Literatura idatzian, argitalpen asko dituzte, baina hiztun gehienak ez daude alfabetatuta euren hizkuntzan irakurri eta idazteko; bai, ordea, gaztelaniaz. Eta hor ikusten du erronka nagusietako bat Carrillok: hezkuntzan. Paisaia linguistikoa ere ez du lekurik Yucatango maiak, eta jakina, ikusten ez denak ez du baliorik. "Ez da ezer egiten, gurea bezala jatorrizkoak diren hizkuntzak bistratzeko", dio. Azpimarratu du, hala ere, azkeneko urteotan hizkuntza gutxituen aitortzarako lege bakanen batzuk onartu dituztela, baina hor ere badituzte bainak: "Haien berri ematen ez denez,



maia hiztun askok ezagutu ere ez dituzte egiten dagozkien esku-bideak. Horregatik guztiagatik hizkuntza ikusarazteko tresnak, erabilerrako espazioak eta maia izatearen estereotipo baztertzaileren kontra egiteko bideak landu behar dituztela uste du. "Janzteko moduagatik eta hitz egiteko eragatik baztertuta gaude mugitzen garen espazio publiko guztietan, eta beharbada horregatik, transmisiorik ere ez dago gurasoetatik seme-alabetara. Gurasoek etorkizun hobea desio dute haurrentzat".

Maia herria pobrea eta itxaropenik gabea delako ideia eraitsi nahi dute gaur hizkuntza suspertzeko eta normalizatzeko ahaleginean ari direnek. "Komunikabideetan ere ez dauka tarterik gure hizkuntzak. Agertuko bagina hedabideetan, hiztunek bestela aitorzen ez dioten balioa aitortuko liokete ziurrenik maia hizkuntzari, eta berdin, norabide horretan erakunde publikoen aldetik beste ahalegin bat egiten dela ikusiko balute". Euskal Herrian egiten ari diren egonalditik gauza bat azpimarratu nahi izan du: "Euskaldunok zuen hizkuntzaren alde borrokatzeko duzuen kemena eta bulkada eredugarriak dira, eta adoretuta goaz. Ez dugu egiteko erraza, baina etsipenak hartzen gaituenean zuekin oroituko gara".

## LETICIA VAZQUEZ ESTEBAN. Nahuatl hizkuntza. Cuetzalan del Progreso. Puebla, Mexiko.

Pueblako Kulturarteko Unibertsitatean ikasi zuen Leticia Vazquezek eta egun Tosepan Titataniske Kooperatiben Batasunean ari da lanean, nahuatl hizkuntzaren biziberritzean. Mexikon hitz egiten diren jatorrizko hizkuntzen artean, "osasuntsuen" dagoen hizkuntza da nahuatl, hiztun kopuruari dagokionez. 1,6 milioi bat hiztun ditu, baina aurrera egin dezan hizkuntza politika "antzua" eta Gobernuaren "bultzada eskasa" ikusten dizkio Vazquezek. "Komunitate batzuetan, autonomia askearen eskubideaz baliatuz, autogestio-lan handia egin dute, eta, horri esker, gure hizkuntzak bizirik jarraitzen du, etengabeko borrokan. Baina guk biziraun barik, bizi egin nahi dugu, eta horretarako gureari eta gainerako hizkuntza gutxituei duten balioa aitortu behar zaie, hizkuntza politika sendoekin", azpimarratu du.

Mexikon hizkuntza asko bizi dira, baina aipatu du askotan oso zaila dela hiztun bakoitza zein hizkuntzatan ari den identifikatzea. "Ezjakitasun handia dago eta askok ez dute sentitzen euren denik hizkuntza ezberdinak identifikatzeko ardura". Nahuatl hizkuntza familia-giroan hitz egiten da, eta komunitateetan, elizari, jaiei eta uraren inguruko gaietaz ari direnean bereziki. "Gai politikoetarako edota teknologia eta mugimendu berriei lotura duten gaietan, esate baterako kooperatibismoari lotutakoetan, hutsa da



nahualtaren erabilera, corpusa ere egin gabe dagoelako". Vazquezek dio badaudela Mexikon hiztun gutxiago dituzten jatorrizko hizkuntzak, baina aldiz, nahuatlak baino prestigio handiagoa dutenak. "Ez dago hizkuntzaren normalizazio edo estandarizaziorako planik, eta behar-beharrezko zaigu. Hiztun asko dauzkagu, baina gehienak alfabetatu gabeak dira".

Ildo horretan, Euskal Herrira etorri eta Euskaltzaindiaren egitekoaren berri izatea "erabat argigarria" egin zaiola aitortu du. "Orain badakit gure hizkuntzan adituak diren talde bat osatu behar harko genukeela, egiteko horretara jartzeko. Prozesuaren argi-ilunak azaldu dizkigute, eta zeri heldu badakigu". Garbi du, hala ere, Latinoamerikan oso bestelako joko-zelaian aritu behar du dela. "Europako tesuingurua eta gurea oso ezberdinak dira, baina ikusi dugu utopia maite dugunok baditugula ametsak gauzatzeko ereduak. Baliabideak eta lan-erritmoak ezberdinak izango dira, gurean beste lehenetasun batzuk dauzkagulako hizkuntza biziberritzera buru-belarri jartzea zailtzen digutenak: etxebizitza eskubidea, soldata duinak, elikadura...". Hala ere, lanerako gogoz itzuliko dela dio. "Munduan egoteko, pentsatzeko eta ekiteko modua da guretzat hizkuntza, lurrari erabat lotuta dagoen zerbait, eta gure lurra eta gure bizibidea zaintzeko bitarteko behinena da".

## ► ANDREA ARREGI

MEDIKUNTZA IKASLEA

Andrea Arregik (Elgoibar, 1997) medikuntza ikasketak egin ditu Euskal Herriko Unibertsitatean. Ekainean amaitu zuen gradua, eta ordutik Oviedon egon da, BAME (Barruko Mediku Egoiliar) azterketa prestatzen. 13.000 lagunetik gora aurkeztu dira aruten azterketa horretara, eta Arregik 489. nota onena atera du. 8.000 plaza inguru aterako dituzte espezialitatea aukeratzeko, eta apiril amaieran aukeratu beharko du berea. Eskuekin lan egitea gustatzen zaio, baina oraindik ez dauka argi zertan espezializatu nahi duen. Orain, oporretan dago, denbora libreaz gozatzen.

- AINHOA ANDONEGI -

♦ **13.000 lagunetik gora aurkeztu zarete Barruko Mediku Egoiliar azterketa eta 489. notarik onena lortu duzu. Pozik?**

Oso pozik. Espainian iaz medikuntzan graduatu ginen gehienok aurkeztu gara azterketa, izan ere, Espainian derrigorrezkoa da espezialitatea edukitzea medikuntzan lan egin ahal izateko. Mediki moduan lan egiteko bai ala bai azterketa hori egin behar da, oposizio moduko bat da azken batean, eta lortzen duzun notaren arabera, espezialitatea aukeratzeko aukera gehiago izaten dira.

♦ **Nola prestatu duzu azterketa?**

Ekainean bukatu nuen medikuntzako seigarren maila, eta urtarrilera arte egon naiz azterketa prestatzen. Espainian hiru akademia daude azterketa prestatzen laguntzen dutenak, eta ni Oviedokoan egon naiz. Unibertsitateko lagunekin egon naiz pisu batean, eta horrelako elkarbizitza baterako pertsona egokiak aukeratzeko ezinbestekoa da. Ordu asko ematen ditugu elkarrekin, eta elkar ondo ezagutzea garrantzitsua da. Egunean 12 bat orduz ikasten egon gara, zazpi hilabetez. Han esaten ziguten egun bakoitzean zer prestatu behar genuen, testak egiten genituen



“Berriz ere aukeratu beharko banitu ikasketak, medikuntza aukeratuko nuke”

## *“Espezialitatea egiteko 8.000 plaza inguru aterako dituzte, beraz, 5.000 bat lagun kanpoan geratuko dira”*

eta horrez aparte, hiru ordu klase izaten genituen egunero. Larunbatetan azterketa simulakroak izaten genituen, norberak jakiteko zer moduz ari den, eta domeketan, jai. Luzea izan da, eta argi neukan ondo egin behar nuela, ez nuelako nahi esperientzia hori errepikatzea. Oso kontzientziatuta nengoen, baina hala ere, luze egiten da. Banekien ordu asko sartu beharko nituela eta ondo antolatu beharko nintzela. Akademian beharrezko material guztia ematen dute, eta asko errazten dute prozesua. Nik uste dut modu librean azterketa hori prestatzea ezinezkoa dela. Helburua ahalik eta postu onena eskuratzeko da, espezialitatea aukeratzeko aukera gehiago izateko. Aurten uste dut 8.000 plaza inguru aterako dituztela, beraz, 5.000 pertsona inguru geldituko dira kanpoan. Ospital guztietan ez dira aukera berberak egoten espezialitate egiteko, eta Euskal Herrian, gainera, ez daude espezialitate guztiak. Azterketan postu ona lortzea garrantzitsua da.

### ♦ Zuk zein espezialitate aukeratu duzu?

Ez daukat oso argi. Ospitaleetako ate irekietan parte hartuko dut espezialitate desberdinak ezagutzeko, eta erabakiko dut. Jende askok uste du familia medikua, kardiologoa edo zirujaua izatea daudela aukeran, baina espezialitate pila bat daude eta aukeratzeko ez da erraza. Sei garren mailan geundela konturatu nintzen eskuekin lan egitea gustatzen zaidala, baina zirujau izatea ez dut nahi. Ginekologia gustuko dut, adibidez, anestesia ere bai... baina oraindik ez daukat argi. Apirilaren amaieran egin beharko dut aukeraketa, eta maiatzean lanean hasiko naiz. Argi daukadana da Euskal Herriko ospitaleren batean geratzea nahiko nukeela.

### ♦ Prozesu luzea da medikuntza ikastea, baina lanerako aukera handiak dituen, ezta?

Espezialitateak 4-6 urte bitartean irauten du, eta tarte horretan soldata bat irabazten dugu, baina ikasten ari den mediku baten soldata. Espezialitatea bukatu ostean eskuratzen da mediku espezialista titulazioa, eta behin hori

daukazunean osasungintza publikoan zein pribatuan lan egin dezakezu. Epe luzeko ikasleak gara gu. Sei urteko gradua, ondoren BAME azterketa, gero espezialitatea eta horren ostean osasungintza publikoan lan egiteko beste oposaketa batzuk gairatu behar dira. Prozesu luzea da, baina normalean medikuntza bukatzen dutenek, segidan lana izaten dute, eta hori gaur egun ere garrantzitsua da. Batzuei gustatzen zaie ikasketak amaitu eta urtebeteko atsedendaldi moduko bat hartzea gauza bat eta bestea probatzeko, baina niri lasaitasuna ematen dit jakiteak ikasketak amaitu ostean ikasi dudak horretan lana izango dudala. Eta, azkenean, nire bueltako gehienek ere ikasketak luzatu egin dituzte. Gradu motzagoa egin arren, gero masterra edo dena delakoa erekin luzatu egiten zaie, eta askok, gainera, lanik aurkitzen ez dutelako, beste zerbait ikasi behar izaten dute. Beraz, askotan ez dira gu baino askoz lehenago hasten lanean. Niri ez zait hain luzea egin, urteak berehala pasatzen dira, eta unibertsitateko urteak oso onak dira. Bilbon bizitzen egon naiz lagunekin, ostegunetan irteten ginen eta berriz aukeratu beharko banu, dudarik gabe medikuntza aukeratu nuke.

### ♦ Zer dela eta aukeratu zenuen medikuntza ikastea?

Biologia gustatzen zitzaidan, eta interes handiagoa neukan ikasgai horietan teknologia edo kimika baino, eta etxetik ere ezagutzen nuen apur bat medikuntzaren alorra, nire amak ere mundu horretan lan egiten duela. Baina egia esanda, sartu nintzenean ez nekien zer izango zen medikuntza ikastea. Banekien ikasketak luzeak zirela, eta banekien une batzuetan ezingo nituela planak egin nire lagunekin

ikasi egin beharko nuelako, baina berez, ikasketak hasi nituenean joan nintzen barneratzen medikuntza zer zen. Normalean, medikuntza ikasten dugunok badakigu non sartzen garen, eta gehienok dena gairatu dugu urtean. Ikasketak nirekin batera hasi zituzten gehienak nirekin batera graduatu dira; oso gutxi gelditu dira bidean. Medikuntzara sartzeko ere Batxilergoan eta selektibitatean nota ona ateratu behar da, beraz, normalean ikastera ohituta egoten gara medikuntzako ikasleak.

### ♦ Teoria eta praktika uztartzen ditu medikuntza ikasketak.

Bai, eta praktika horiek oso garrantzitsuak dira. Askotan esaten da bokazioz aukeratzeko dela medikuntza, baina nire kasuan gerora sortu zitzaidan bokazioa. Irakasleek transmititzen dute gelan zer den medikuntza, eta hirugarren mailan praktikak egiten hasten gara, eta horrekin sortzen da sentimendu hori. Prozesu luze baten ondorioz sortzen den zerbait da bokazioa, nire ustez. Hasierako praktikak ambulatorioetan izaten dira normalean. Nire kasuan IMQ aseguru-etxe pribatuan egin nituen eta gauza pila bat ikasi nituen. Azken hiru urteetan ospitalean egiten dira praktikak. Ni Donostiako Ospitalean egon nintzen, oso-oso gustura.

### ♦ Orain merezitako oporrez gozatzen ari zara.

Bai, zazpi hilabete gogor izan dira, baina bukatu dira. Orain lasai-lasai nago. Kontua da nire bueltan orain ez dagoela inor oporretan, baina gustura nago. Unibertsitateko lagunekin harreman oso ona daukat, eta haiek nire egoera berean dardenez, egiten ditugu planak. Espezialitatea hasten dugunean tokatuko zaizkit egun gogorak, 24 orduko guardia asko egin behar izaten direlako lau-bost urte hauetan. Baina ilusioz beterik nago lanean hasteko. Badakit pandemiaren eraginez lan baldintza gogorak daudela ospitaleetan. Sei garren mailako praktikak pandemia batean tokatu zitzaizkidan, eta ikusi nuen egoera hartan lan egitea zer zen. Langile falta handia zegoen, ez ziren iristen eta denak gainezka zeuden. Baina bueno, zorionez, egoerak hobera egin du.

## Errenta aitortpena euskaraz egitera animatu nahi dituzte herritarrek Elgoibarko Udalak, UEMAk eta Elgoibarko Izarrak

**H**eldu da unea 2021eko errenta eta ondarea aitortzeko. Apirilaren 4an hasiko da kanpaina Bizkaiko eta Gipuzkoako foru ogasunetan, eta ekainaren 30era arte iraungo du. Horren harira, 100.000 zergadun ogasunarekin euskaraz egiten jartzeko egitasmoari heldu dio Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta Elgoibarko eta Mendaroko udaletatik, Elgoibarko Izarratik eta UEMAtik errenta aitortpena egitean euskara aukeratzera deitu dituzte herritarrek.

Aldundiaren arabera, 2020. ekitaldian, herritarren %17,06k egin zuten errenta aitortpena euskaraz Debabarrenean, euskaraz dakiten 20 urtez gorako herritarrek hiru aldiz gehiago direnean gure eskualdean: %55,67. Bestera esanda, errenta aitortpena egitera deituta zeuden 11.763 herritarretatik 3.998k aukeratu zuten euskara. Gure bi herrietara etorrita, Elgoibarren, errenta egitera deitutako 5.983 lagunetik 1.068k egin zuten euskaraz (%17,85). Mendaron, datua zertxobait hobea da, baina apala oso, hala ere. 996 lagunetik 237k aukeratu zuten euskara (%23,80) Ogasunarekin dugun betebeharra betetzeko.

Errenta aitortpena euskaraz eginda euskarari bide berriak zabaltzen zaizkiola gogorarazi dute UEMAtik ere, eta hein berean, administrazioaren euskalduntzea ere bultzatzen dela. Administrazioarekin euskaraz egin nahi duenak, bi bide dauzka adierazteko. 1. Internetez. *Gipuzkotarian* webgunean sartu eta Ogasunarekin harremanetan jartzeko datuak aldatuta. 2. Aurrez aurre: Ogasu-



neko herritarren arretarako bulegoetan edo Aldundiko erregistro zentrolean 030 ereduak aurkeztuz, partikularren kasuan, eta 036 ereduak enpresen kasuan.

Errenta kanpaina egiteko orduan ere, aukeratu daiteke hizkuntza. Autolikidazio proposamenaren bidez, errenta mekanizatuko bulegoan laguntzen digun langileari eskatuta, Ogasunaren Zergabidea plataformaren bidez edota aitortpena egiteko gestoriaren bidez.

Errenta aitortpena egiteko hitz teknikoaren inguruko hiztegia ere osatua du Aldundiak. Hemen duzue kontsultagai: <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ogasuna/ogasunarekin-euskaraz>.

## Etxean edo lokalean grabazio bati nola ekin azalduko du Fredi Pelaez grabazio ingeniariak eguaztenean



Musikagintzan ari diren gero eta gehiagok jotzen dute autoproduktorea euren lanak zabalitzeko, eta prozesuaren hasieran sor daitezkeen galdera eta zalantzak argitzeko, hitzaldia antolatu du EME Elgoibarko Musikarien Elkarteak apirilaren 6rako (eguztana). EME Ekintzak jardunaldiko bigarren saioa izango da, eta Pottoko Studioko Fredi Pelaez grabazio ingeniariak emango du oraingo hitzaldi hau. Norbere lokal edo etxean grabazio bati ekiteko urratsak azalduko ditu. Sarrera doan izango da.

## Udaldiko eskaintza umeekin erabakitze bilerak antolatu dituzte

Atxutxiamaika eta Udal Ludoteka udako aisia eskaintza prestatzeko lanetan ari dira, eta eskaintza hori erabiltzaileekin eurekin adostu nahi dute. Horretarako, hainbat bilera egingo dituzte datorren astean, adin tarteka banatuta. HH5 eta LH1eko umeak apirilaren 6an batuko dira, eta gometxen sistemaren bidez aukeratu dituzte gehien gustatzen zaizkien ekimenak. Hilaren 7an LH2 eta LH3koak batuko dira, eta ekintzen ideia zaparrada egingo dute. Apirilaren 8an, azkenean, LH4tik LH6ra artekoek Berbaldia egingo dute. Bilera guztiak 17:00etan izango dira, Ludotekan.

## Saxofoi jole gazteen txapelketak eta Udal Musika Bandaren kontzertuak bat egingo dute asteburuan

Hamaikasax Saxofoi Elkarteak eta Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak antolatuta, saxofoi jotzaile gazteentzako Hamaikasax Nazioarteko saxofoi lehiaketa jokatu dute asteburuan musika eskolako auditoriumean. Portugal, Frantzia, Espainia eta Euskal Herriko 19 saxofoi jotzailek hartuko dute parte, eta horien artean, hiru elgoibartar ere arituko dira: Elaia Etxaniz, Unai Aizpurua eta Aimar Vigarra. Bihar jokatu ditzute finalurrekoak, 11:00etatik aurrera. Arratsaldean, bestalde, Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioko ikasleen ensembleak kontzertua emango du, 19:30ean hasita. Finala, berriz, domekan jokatu dute, 10:00etatik aurrera. Lehiaketa honek Udal Musika Bandaren kontzertuarekin bat egingo du domekan, eta sari banaketa ekitaldia Herriko Antzokian egingo dute, Udal Musika Bandak eskainiko duen kontzertuaren barruan. 12:30ean hasiko da kontzertua, eta lau pieza eskainiko ditzute. Hirugarren piezaren ostean banatuko ditzute saxofoi lehiaketako sariak. Domeka goizean, bestalde, dultzaineroek diana joko dute kalejiran, 10:00etatik aurrera.



### Korrika Txikia martitzenean egingo dute Elgoibarren

Eguraldi iragarpenaren ondorioz, gaur egitekoak ziren Korrika Txikia bertan behera lagatzea erabaki dute Elgoibar Ikastolako eta Herri Eskolako arduradunek. Apirilaren 5ean egingo dute, eguraldia aldekoa bada. 14:35ean hasiko dira Maalan, eta Kalegoen plazaraino egingo dute korrika, *Hitzekin* lemapean. Mendaron ere gaur egitekoak ziren, baina lerro hauek idazterakoan erabakitzeke zuten ekitaldia mantenduko zuten edo beste egun batera atzeratuko ote zuten.

## Udaberriari ongietorria emateko festa antolatu du Atxutxiamaiak, biharko

Udaberri Festa antolatu du Atxutxiamaiak biharko, Udalarekin lankidetzan. Udaberriari ongietorria emateko hainbat ekintza egingo ditzute Kalegoen plazan: eskulan gidatuak zein libreak, jolasak, tailerrak... 11:00etatik 14:00ak bitartean izango da. Euria ginez gero, udaletxeko arkupeetan batuko dira.

### Udaldirako hezitzaileak behar ditu Elgoibarko Izarrak

Elgoibarko Izarrak udaldiko aisia eskaintzan lan egiteko hezitzaileak behar ditu. Hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak amaituta izatea edota begirale titulua izatea eta ahozko euskara maila handia izatea eskatzen da. Era berean, aisialdian lan-eskarmentua izatea, Elgoibarko izatea, Heziketa berezietako ikasketak nahiz esperientzia izatea, espezializazio ikastaroak egin izana eta herrigintzan jardun izana ere baloratuko dute. Interesatuak apirilaren 22ra arte dute [www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus) webguneko lan poltsan curriculumak sartzeko epea. Hautagaiak frogatzea bat egin beharko dute, eta merituen baloratuko zaizkie. Azkenik, hautatuak direnek asteburu formazio saio bat egin beharko dute.

### Ukrainako gerra islatu du Gemma Monrealek kuadro batean

Errusiaren inbasioa hasi eta lehenengo bonbak Ukrainan erortzen ikusi zituenean piztu zitzaion amorrua islatu du Gemma Monrealek bere azken koadroan. Historiako gertakirik latzenak gaur egun berriz errepikatzen direla ikusteak inpotentzia eta haserre eragin dizkio, eta berak dakien moduan egin du protesta: koadro bat margotuz. Zuhaitza erretzen, kultura deusesten, animaliak triste, nagusi eta umeak ihesi, eta ama baten tristura islatu ditu besteak beste. Kolore grisak dira nagusi, eta fondoan urdin eta horiak erabili ditu, Ukrainako banderari erreferentzia eginez.



## Unai Loiolak irabazi du Aiastiako tiraldia, Gipuzkoako Txapelketako aurrenekoa

Aiastiako San Migel bolatokian hasi zuten zapatuan Gipuzkoako 51. Hiru-txirlo bola joko txapelketa, eta etxean geratu zen lehen garaikurra. San Migel taldeko Unai Loiolak sei txirlo bota zituen egin zituen hiru jaurtialditan (3-3-0), beste inork baino gehiago, eta berak lortu zuen garaipena. Asola-Berri taldeko Iñaki Gojenolak eskuratu zuen bigarren postua, bere hiru jaurtialditan bost txirlo botata, eta Elgeta taldeko Fidel Madariagak egin zuen hirugarren, lau txirlo botata. Guztira 66 bolarik hartu zuten parte Aiastiako tiraldian. Gipuzkoako txapelketako bigarren jardunaldia jokatuko dute bihar, Azpeitiko Garmendipe bolatokian. Aurtengo txapelketak 11 jardunaldi izango ditu, eta Elgoibarren jokatuko dituzte horietako bi; Aiastian jokatu berri dutena, eta apirilaren 23an Idorben jokatuko dutena. Pandemia dela-eta 2019an jokatu zuten azkenengo txapelketa hau eta Angel Ibarluzea elgoibartarra gailendu zen.



## Lizarralde eta Arrizabalaga nagusi Mutrikuko pala txapelketan

Urtarriletik aritu dira lehen 2022ko Mutrikuko Binakako Pala Txapelketan lehiatu diren 34 bikoteak, hiru kategoriatan banatuta: 8 bikote lehiatu dira 1. mailan, 12 bikote 2. mailan eta 14 bikote 3. mailan. Joan den zapatuan jokatu zituzten hiru kategorietako finalak. Lehen mailakoan, Gorka Lizarralde eta Kepa Arrizabalaga elgoibartarrek Jokin Aizpuru eta Erleaga izan zituzten aurkari. Partida parekatua jokatu zuten, eta ordu eta erdi inguruko lehia gogorraren ostean 21 eta 25 irabazi zuten elgoibartarrek. Hirugarren mailako finalean lehiatu zen Martin Urigoitia elgoibartarra, Julenekin bikotea osatuz, baina ezin izan zieten Fermin eta losuk osatutako bikote mutrikuarri irabazi. 25 eta 14 irabazi zuten finala.

## Giro onean joan zen Skate Eguna



Erakustaldiak eta ikastaroak uztartu zituen joan den zapatuan Basarteko skate parkean egin zuten Elgoibarko Skate Egunean. Aurreneko edizioa giro onean joan zela azaldu dute antolatzaileek. Goiz partean 'Ipar' surf eta skate eskolakoek emandako ikastaroetan parte hartzeko aukera izan zuten izena emandako gaztetxoek, eta arratsaldean erakustaldia eman zuten Maria Elozegi eta Alexis Navia skaterrek. Skate libre saioarekin amaitu zen Skate Eguna.

## Udaberri Saria irabazi dute Etxanizek eta Basurtok

Lagunak pilota eskolako Eneko Etxaniz eta Beñat Basurto gailendu dira eskuz binakako Udaberri Saria pilota txapelketan, 3. mailan. Lasarte Orian jokatu zuten finalean 22 eta 15 irabazi zieten Oier Landa eta Julen Arizimurñok osatutako Murumendiko bikoteari.





## Kilimon Trail mendi-lasterketa, bihar

Mendaro inguruetako mendietan jokatuko dute Kilimon Trail mendi-lasterketa, bihar, 16:00etatik aurrera. Mendaroko Txirrindulari Elkartek eta Lizarpe Mendi Klubak antolatzen duen proba Euskal Herriko Koparako puntuagarria izango da aurrenekoz, probaren hamargarren urteurrenean, hain justu ere.



Bost lasterketek osatuko dute Kopa eta Bedian jokatu zuten aurrenekoa (Kolazino Mendi Eguna), joan den martxoaren 19an. Bigarrenkoa izango da Mendarokoa. Zailtasun desberdineko bi ibilbide izango ditu probak, bata 23 kilometrokoa eta 1.650 metroko gainbehera positiboaren duena eta bestea 11 kilometrokoa eta 900 metroko gainbehera positiboarekin. Aspaldi itxi zuten izen ematea, antolatzaileek jarritako mugara iritsi zelako. 450 lasterkari hartuko dute parte. Euskal Herriko mendi lasterkari onenez gainera, mundu mailako atletarik onentsuenak ere izango dira Mendaron. Anders Kjærevik norvegiarra da horietako bat. Bartłomiej Przedwojewski poloniarra 2018an ezarritako errekorra (1.54:43) ontzeko asmoarekin dator eta adituen arabera, jaitsieretan hobekien moldatzen den lasterkarietako bat da. "Jaitsieretan duen trebetasun hori bertatik bertara ikusteko desiatzen gaude", azaldu dute Lizarpetik. Kjærevik Mendaron da, eta ibili da Lizarpe aldean entrenamenduak egiten.



### Julen Salaberria azkarrena Donostiako Hiru Mendiak lasterketan

Igeldo, Urgull eta Uliia mendiak lotzen dituen Donostiako Hiru Mendiak lasterketa herrikoia jokatu zuten martxoaren 20an. Triku kirol elkarteak antolatzen du proba eta guztira 234 lagunek hartu zuten parte Julen Salaberria Anton elgoibartarra izan zelarik azkarrena 15,1 kilometroko ibilbidea osatzen, ordu bat, lau minutu eta 51 segundoko denborarekin. Irabazleak 17 segundoko aldea atera zion bigarren egina zuen Javier Arangureni eta 43 segundokoa hirugarren egina zuen Mikel Zubiriari. Emakumezkoetan 01:15:16ko denbora eginda gailendu zen Naiara Irigoyen atarrabiarra.

## Gaurvek lortu du mailari eustea, eta Alcortak eskura du igoera kanporaketarako sailkatzea

laz Liga amaitzeko jardunaldi baten faltan lortu zuten salbazioa Sanloko senior emakumezkoen talde nagusiak, eta bi jardunaldiren faltan iritsi da aurten. Gaurve Asesores taldeak azken sailkatuaren aurka jokatu zuen zapatuan Olaizagan. Garaipena behar zuten mailari eustea ziurtatzeko eta etxeko taldeak 23 eta 15 irabazi zion B.M. Loyola Iruñeako taldeari. Garaipenagatik lortutako bi puntuak batuta, 16 puntu ditu orain Gaurvek sailkapenean (10. postuan daude), eta jaitsiera postuen mamua uxatu ostean, lasaitasun gehiagorekin jokatu ahal izango dituzte Zilarrezko Ohorezko mailako ligako azken bi jardunaldiak. Gizonezkoen dagokionez, igoera faseko bigarren postuan sailkatuta dagoen Alcorta Forging Group taldeak hirugarren postuan dagoen Oñatiko Aloña Mendi taldearen aurka jokatu du bihar, apirilaren 2an, Olaizaga kiroldegian (19:30). Igoera fasea bukatzeko bi jardunaldiren faltan, Alcortak 10 puntu ditu sailkapenean eta bederatzia Aloñak. Hortaz, garaipena eskuratuz gero, igoerako kanporaketak jokatzeko zuzeneko txartela eskuratuko luke Alcortak, matematikoki. Horregatik, klubetik dei egin diete zaleei, Olaizagako harmailak bete eta taldea animatzeko.



**LANA.....**  
**Eskaerak**

Etzeko garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka. Euskalduna naiz.  
☎ 626 490 986

Adinekoak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egiten ditut. Esperientzia eta beharrezkoak diren tituluak ditut. Astebukaeretan lan egiteko prest.  
☎ 688 739 536

Adinekoak zaintzeko prest nago, etzeko langile moduan zein orduka. Garbiketa lanak ere egiten ditut. Adinekoekin edo gaixoekin ospitalean gaua pasatzeko ere prest nago, baita asteburuetan ere.  
☎ 688 959 575

Lanerako prest nago. Euskalduna naiz.  
☎ 688 725 715

Orduka egingo nuke lan, adinekoak edo umeak zaintzen. ☎ 631 229 408

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.  
☎ 664 851 672

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, asteburuetan. Etzeko langile moduan lan egiteko ere prest. ☎ 643 584 198

Adinekoak edo mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeko prest nago, orduka, asteburuetan edo gauetan. Esperientzia eta beharrezkoa den titulua ditut.  
☎ 660 511 781 / 943 742 330

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago, orduka edo asteburuetan. Garbiketa lanak egiteko ere prest. Berehala hasiteko moduan nago.  
☎ 642 044 712

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo asteburuetan. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago. ☎ 631 677 339

Ingeleseko klase partikularrak emateko prest nago, LH, DBH zein Batxilergo mailetan. ☎ 655 392 365

Edozein lan egiteko prest nago, asteburuetan. Eskola partikularrak eman, zerbitzari lanak... Euskalduna naiz.  
☎ 684 221 398

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago, orduka. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago. ☎ 631 229 408

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulua daukat, eta paperak legez.  
☎ 654 994 405

Adinekoak edo 2 urtetik gorako umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko prest nago. Etzeko langile modura zein orduka.  
☎ 632 382 740/ 632 671 842

**Eskaintza**

Estetika zentro baterako estetizista behar da. Esperientzia kontuan hartuko da, eta euskaraz jakitea, ezinbestekoa da. Bidali curriculumak [olamarsan@gmail.com](mailto:olamarsan@gmail.com) helbidera.

**GARAJEAK.....**

Garaje plaza salgai edo alokairuan, Kalamua kalean. ☎ 650 043 495

**AUTOAK.....**

Volkswagen Golf autoa salgai. Egoera onean. ☎ 679 830 438

**OSPAKIZUNAK.....**

1972an jaiotakoen bazkaria, ekainaren 18an, Sigma jaietxean. Egun osoko egitaraua prestatzen ari dira 50. urteurrena ospatzeko. Izena emateko 80 euro ordaindu behar dira, maiatzaren 31rako: ES40 3035 0007 26 0071134189 (Laboral Kutxa). Ordaintzerakoan izen-abizenak zehaztu behar dira.



administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas  
Euzkoako Finantza Administrazioaren Kontseilua



**ROSA Ma  
PINTADO**

Etzaldeen Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**

**Nire komunitatean hainbat konponketa egin dira pilare aizunetatik bideratutako hondakin-uren hoditeria aldatzeko. Lokalen onerako izan da pilareak kendu eta hodiak sabaitik bideratu dituztelako. Lokalen jabeak eskatu du lokal guztiak estaliko dituen sabai bat egitea. Jakin nahi nuke ea jabeak eskari hori egin dezakeen eta hala balitz ea lokal guztiko sabai estali beharko litzatekeen ala hodiak estaltzeko beharrezko zatia baino ez.**

Lehendabizi jakin beharko litzateke komunitatea derrigortuta dagoen ala ez estetika-kalteak ordaintzera, guztien elementuei dagozkien konponketa lanak egiterakoan komunitatea jabetza pribatu batean sartzen denean. Nire ustez eska daiteke sabai hori jartzea, baina ez lokal guztia estaltzea, hodiak tapatzeko behar dena baizik, hori baita estetikoki kaltetutako zatia. Kalte-estetikook komunitateak ordaindu beharko ditu. Izan ere, ezbeharrak eragindako kalte guztiak ordaintzera derrigortuta dago.

**Aholkua: Lokalean izandako eragin kaltegarri guztiak konpontzeko egin behar dira lanak eta horien artean daude konponketa estetikoak. Beraz, lokalaren jabeak eska dezake lan horiek estetika errespetatuz egitea.**



**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak)  
baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora,  
[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara edo  
☎ 688 634 044 bidalita.



Zorionak,  
**Izaro!** 7 urte  
handi!! Muxu  
handi bat,  
etxeke denon  
partez.

Zorionak, **Mara eta Enara**, hilabete  
honetan 5 eta 2 urte beteko dituzuelako.  
Gure bizipoza zarete, printzesak. Muxu  
handi bat, etxekeon partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€.  
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€  
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

## EXPRESS ESKAINTZAK!

### F4DV5009S1W LG ARROPA GARBIGAILU ETA LEHORGAILUA

**659 €**

**A T G B** Garbiketak

**A T G E** Lehortzeak

- Garbiketa lanetan 9kg-ko edukiera
- Lehortze lanetan 6kg-ko edukiera
- 1.400 b/min
- Hasiera geroratua
- Wash turboa
- Ur-lurruna



- Smart Diagnostiak
- AIDD

# MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.



## KONTSULTATEGIA



*Nola mantendu  
ahoa garbi  
eta osasuntsu?*



Lehenengo pausoa hortzak egunero eskuilatzea da. Egunero egoki eskuilatuz gero, ahoan pilatutako elikagaiak desagertu egiten dira, lertzoaren metaketa eta esmaltearen desmineralizazioa murriztuta.

Bigarrenik, hortzetako zeta erabiltzearen garrantzia azpimarratu nahiko genuke Aldaz hertz klinikatik. Garrantzitsua da gutxienez egunean behin erabiltzea hortzetako zeta, hortzen artean pilatzen den hondarren kontra egiteko.

Azkenik, Aldaz hertz klinikaren urtean behin gutxienez hortzen azterketa egiteko gomen datzen dugu. Garrantzitsua da, urtean behin gutxienez, norbere konfiantzako hertz klinikara joatea, eta ez bakarrik aho-hortzetako osasun arazoren bat dagoenean.

**ALDAZ HORTZ KLINIKA**

San Bartolome, 22- 20870 Elgoibar

[iyd@dentalaldaz.com](mailto:iyd@dentalaldaz.com)

**943 366 377**

## 1 BARIKUA

**10:00** Korrikari ongiatorria. Mauxitxaren kalejira Kalegoen plazatik.

**10:10** Korrikari harrera, Sigmako zuzian, Mauxitxak girotua.

**15:00** Korrika Txikia, Mendaron. (Azken orduan aldaketak egon daitezke eguraldiagatik).

**19:00** Filma: 'Tipularen sehaska kanta'. Lander Garrok zuzendutako dokumentala da, gaixotasunak espetxean eragiten duen samina azaleratzeko. Sarek antolatuta, Herriko Antzokian. Doan.

**19:00** Bideo foruma: 'Colette'. Hai-zeak antolatuta, Lilan.

## 2 ZAPATUA

**11:00** Udaberri festa. Atxutxiamaikak antolatuta, Kalegoen plazan.

**11:00** Saxofoi-jole gazteen nazioarteko 2. Hamaikasax lehiaketa. Inazio Bereziartua Musika Eskolak antolatuta, musika eskolako auditoriumean.

**16:00** Kilimon Trail mendi lasterketa, Mendaron. Herriko Enparantzan hasi eta amaituko da. Mendaro Txirriindulari Elkarteak eta Lizarpe Mendi Klubak antolatuta.

## 3 DOMEKA

**10:00** Diana, herriko dultzaineroekin.

**10:00** Saxofoi-jole gazteen nazioarteko 2. Hamaikasax lehiaketa. Inazio Bereziartua Musika Eskolak antolatuta, musika eskolako auditoriumean.

**12:30** Udal Musika Bandaren kontzertua, Herriko Antzokian. Zuzendaria: Gorka Mujika.

Egitaraua:

1. *Gallop* (A. Reed)
  2. *Gladiator* (H. Zimmer)
  3. *Eusko Irudiak* (Jesus Guridi)
- Saxofoi lehiaketako sari banaketa
4. *Irish tune* (P. Grainger)

## 5 MARTITZENA

**14:35** Korrika Txikia, Herri Eskolak eta Elgoibar Ikastolak antolatuta Maalatik Kalegoen plazaraino (eguraldiak baldintzatu dezake ekimen hau).

## 6 EGUAZTENA

**19:30** Hitzaldia: 'Nola ekin grabazio bati norbere lokal edo etxean'. EMEK (Elgoibarko Musikariaren Elkarteak) antolatuta, Musika eskolako auditoriumean.

## 8 BARIKUA

**19:00** Kontzertua: Noa & the hell drinkers. Herriko Antzokian. Sarrerek erosteko [herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus) edo zapatueta, Herriko Antzokiko txarteldegian.

### Zinea (Herriko Antzokian)



#### 'Competencia oficial'

2 zapatua: 19:00 / 22:15

3 domeka: 19:00

4 astelehena: 21:00

#### 'Tximinoen izarra'

3 domeka: 16:30

#### 'El amor en su lugar'

6 eguaztena: 21:00

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-22:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)			
1 BARIKUA	2 ZAPATUA	3 DOMEKA	4 ASTELEHENA	5 MARTITZENA	6 EGUAZTENA	7 EGUENA	8 BARIKUA
Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola

\* Fernandez:  
Herriko enparantza, 4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00**  
Esther Mendinueta Berastegui.  
Urkizu pasealekua, 6 (Eibar) - 943 820 106

## ETA, DEBABARRENEAN ZER?

'HITZAK, LIBURUAK ETA LIBURUTEGIAK GERREN KONTRA'  
POESIA EMANALDIA, EIBARREN

APIRILAK 8, 20:00ETAN


Liburutegiek eta liburuek beti jasan izan dituzte erasoak gerretan. Kultura, ezagutza, nahita suntsitu dira historian zehar. Eibarko liburutegitik gerren aurkako ahotsa goratu nahi dute, nahiz eta badakiten historia irakurtzeak eta ezagutzeak ez duela saihesten berriro errepikatzea. Poema eta testu irakurketa egingo dute Idoia Carramiñanak eta Maite Lorenzok.



I. URTEURRENA

*Jose Mir Agirre*

2021eko apirilaren 4an hil zen, 72 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, apirilaren 3an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zareteneoi alde zurretik eskerrak.

***Beti izango zaitugu gogoan.***

I. URTEURRENA

*Fermin Arrese Arizmendarrieta*

2021eko apirilaren 8an hil zen, 91 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, apirilaren 3an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zareteneoi alde zurretik eskerrak.



III. URTEURRENA

*Fernando Gonzalez Mediavilla*

2019ko apirilaren 6an hil zen, 55 urte zituela.

***Zure begi ederrek iluntzea ikusi ezin badute ere,  
zure esku sendoek gure hormak margotu ezin dituzten arren,  
eta guk zure presentziaz gozatzerik ez badugu ere,  
zuk, zure argitasunarekin, kolorez jantziko dituzu gure bizitzak.***

***Maite zaitugu, Fer.***

Etxekoak





## *Kontxita Urbieta Uranga*

2022ko martxoaren 23an hil zen, 86 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

*Zeruko izarren artean aurkitu duzu tokia,  
lurrean utzi dituzun izarrei emateko argia.  
Zure indarrak emango digu benetako bizia,  
egunsentiarekin batera jarraitzeko bidia.*

Etxekoak



## *Joseba Osoro Loiola*

2022ko martxoaren 27an hil zen, 70 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

*Zure indarra eta adorea gogoan dugun bitartean,  
beti izango zara gure artean.*





## *Carmen Eguidazu Lejardi*

2022ko martxoaren 29an hil zen, 71 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

## *Maria Jesus Apaolaza Epelde*

2021eko martxoaren 30ean hil zen, 63 urte zituela.



**Zure irribarre goxoa eta maitasuna  
betirako izango dira gure artean.**

Elgoibarko lagunak




I. URTEURRENA

## *Maria Jesus Apaolaza Epelde*

2021eko martxoaren 30ean hil zen, 63 urte zituela.  
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da,  
domekan, apirilaren 3an, 11:00etan,  
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.  
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Bihotzetik zeruraino maitte zaitugu.***

Zure familia eta lagunak



# G R E M I O N E N GIDA

## ARROZTEGIAK

**Ulazia**  
ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK  
Albitxuri industrialdea, 1-0/ 1-P  
943 740 547



**iraolagoitia**  
aroztegia · altzarriak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain industrialdea, 9  
20850 Mendara  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

[www.iraolagoitia.com](http://www.iraolagoitia.com)

**MAR**  
ARROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea  
943 531 471  
609 054 978  
[carpinteriamar@hotmail.com](mailto:carpinteriamar@hotmail.com)



Aroztegia  Carpinteria

**ASIMA**

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225  
[asimaaroztegia@gmail.com](mailto:asimaaroztegia@gmail.com)

**BIENA S.L.**  
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
[www.biena.eus](http://www.biena.eus)  
[info@biena.eus](mailto:info@biena.eus)



## ELEKTRIZITATEA

**egoluz**   
ELEKTRIZITATEA S.L.

Andres: 630 957 345  
677 512 462  
Pedro Migel Uruzuno, 14 behea  
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697  
[ego.luz@hotmail.com](mailto:ego.luz@hotmail.com)

**LEIHOAK**

**LODOSO LEIHOAK**

SIGMA INDUSTRIALDEA, 223  
[lodosofj@gmail.com](mailto:lodosofj@gmail.com)  
Tel.: 943 74 34 90

**PINTURA**

**BIOK**  
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552  
606 431 120  
[biok@biokdekorazioa.com](mailto:biok@biokdekorazioa.com)

**ERREFORMAK**

**ESTUDIOS ARRILLAGA**

Ermosario kalea, 15 behea - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

943 744 019  
605 713 168

## ITURGINTZA

**ongi** iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11  
ELGOIBAR  
Tel.: 943 254 522  
Faxa: 943 254 523  
[ongi@ongielgoibar.com](mailto:ongi@ongielgoibar.com)  
[www.ongielgoibar.com](http://www.ongielgoibar.com)

**SANTANA** 

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behea  
Elgoibar  
943 740 530 / 605 714 905  
[santanaiturgintza@gmail.com](mailto:santanaiturgintza@gmail.com)

**PAGOAGA S.A.**

BULEGOA ETA ERAKUSKETA  
Pedro Migel Uruzuno, 8  
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565  
[tienda@pagoagasa.com](mailto:tienda@pagoagasa.com)  
[www.pagoagasa.com](http://www.pagoagasa.com)

**BILTEGIA**  
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279  
[tailler@pagoagasa.com](mailto:tailler@pagoagasa.com)  
ELGOIBAR

**IGELTSERITZA**

**A. Garate**

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua

[angelmgarate@gmail.com](mailto:angelmgarate@gmail.com)  
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia  
Elgoibar

**610 226 651**

